



**Zinemaldi
Alternatiboa**
SAN SEBASTIAN INSURRECTIONARY FANDANGO FESTIVAL

12+5
Irailaren 18tik 28ra

OSTEGUNA 18

Smurfit, criminal ambiental

20:00 / Uliako Mintegietako parkean

OSTIRALA 19

Producto local

19:00 / Guardetxean (Parte Zaharra)

LARUNBATA 20

Infiltrats

19:00 / Letaman gaztetxean (Intxaurreondo)

IGANDEA 21

Uharte bat eta gau bat

20:00 / Zubietako Errebote plazan

ASTELEHENA 22

El arte de los analfabetos

19:00 / Marruma Elkartean (Gros)

ASTELEHENA 23

Kneecap

19:00 / Añorgako gaztetxean

ASTEAZKENA 24

Push

17:30 / Arkitektura Eskolan (Ibaeta)

OSTEGUNA 25

Sin miedo a los cables

19:00 / Txantxarrekan (Antiguo)

OSTIRALA 26

Igelak

20:00 / Arteleku plazan (Txominenea)

IGANDEA 28

A magical substance flows into me

19:00 / Sagueseko frontoian (Gros)

SSIFF

**San Sebastian
Insurrectionary
Fandango Festibal**



DONOSTIAKO ZINEMALDI ALTERNATIBOA 12+5
San Sebastian Insurrectionary Fandango Festibala

Hamazazpi urte komunitatea ehuntzen, borrokaz borroka, auzoz auzo.

2006an Parte Zaharreko Gazte Asanbladak lehenengo edizioa antolatu zuenetik, Zinemaldi Alternatiboak erresistentzia eta disidentzia askotarikoen bozgorailu izan nahi izan du, zinema, gozamina, kritikotasuna eta aldarrikapena uztartuz.

Urte honetan hamazazpigarren edizioa ospatuko dugu, eta helburua berbera da: zinemaren bidez hausnarketa kritikoa sustatzea, gizarte-gai eta -gatazka ezberdinei buruzko lanak proiektatuz eta hauek eztabaidan jarritz, pentsamenduak eragin eta arazoei aurre egiteko bitarteko komunak irudikatzea.

Kultura gizartearen eraldatzeko tresna gisa ulertzen dugu, eta zinema komunitateak ehuntzeko bitarteko gisa erabiltzen dugu, herritarron harreman-espazioak aldarrikatzeko.

Zinemaldi Alternatiboak elkarlan aktiboa sustatu nahi du, eta, 2025eko edizio honetan ere, Donostiako eragile eta mugimendu sozialekin elkarlanean antolatu ditugu proiektzioak, bateko eta besteko borrokari ekarpena egin asmoz:

Letaman eta Txantxarreka gaztetxeak, Marruma Kulturalak, Behin Batean Txomineneko euskaltzaleen taldea, A.Z.G.A., Gurdi Ertz kolektiboa (Zubieta), Komite Internazionalistak, Redher edo Human Conet.

Palestina gogoan.

Zinemaldi Alternatiboak Israel Palestinan egiten ari den genozidioa salatzen du. Bigarren urtez Palestina izango da kartelaren protagonista. Eta hala izaten jarraituko du behar adina aldiz. Bestalde, irailaren 28an, igandearekin, Jumana Manna atrtista palestinarren **A magical substance flows into me** lana proiektatuko dugu Sagueseko frontoian.

Kontakizun ofiziala zalantzan jartzeko beharra.

"La Infiltrada" filmaren ondoren, "Un fantasma en la batalla" dator. Euskal gatazkari buruzko film berri bat, bigarrena bi urte eskasean, eta berriro ere polizia infiltratuak protagonista dituen. Aurtengo Zinemaldian aurkeztuko da. Sail Ofizialean, lehiaketaz kanpo.

Bi film gehiago izan zitezkeen, beste bi, gure iraganari buruzko kontakizunaren batailan eragin nahi duten hainbaten artean. Baina kontatzen duten guztia ez da iragana, ez behintzat poliziari dagokionez. Eta gaurkotasanak zabaldu egiten du film horiek jatorrian interpelatu nahi omen zuten "gu" hori. Biak oso testuinguru zehatzean aurkezten direlako.

"Llevamos dos años y medio denunciando infiltraciones en movimientos sociales, dos años donde hemos visto cómo el Estado no teme saltarse ninguna línea roja. Movimientos por el derecho a la vivienda, asambleas libertarias, vecinales, luchas por el territorio, feministas, antirracistas, ecologistas, independentistas, sindicatos y un largo desfile de gente que intenta luchar por un mundo un poco más digno en el que vivir han sido objetivo de un plan de Estado para investigar las disidencias. No han dudado en meter gente en nuestras asambleas, pero tampoco en hacerlo en nuestras casas, nuestras familias, nuestras camas y nuestras vidas. Y mientras las personas afectadas pedimos respuestas se estrena una película que vanagloria el papel del policía infiltrado, dando a esta figura una importancia que la eleva a héroe." (Pikara, 2025/02/12)

Lehenengoaren atzetik, bigarrena dator. Gidoia errepikatzen da. Eta ez da kasualitatea bi film hauek orain aurkeztea, bata bestearen atzetik. Poliziaren irudia publikoki zalantzan jarri dute argitara eman diren azken espioitza eta infiltrazio kasuek. Kontakizun berri bat behar zuten poliziaren irudia goraipatzeko, eta zer hoberik horretarako zinema baino. Baina infiltratutako polizien jokabidea zurituz tortura justifikatu nahi dutenen aurrean, Zinemaldi Alternatiboak planto egiten du. Horregatik, irailaren 20an "Infiltrats" dokumentala proiektatuko dugu Intxaurrondo auzoan, Letaman gaztetxean eta, gainera, infiltrazio kasu berrienak azaleratu dituzten ikerketak ezagutzeko aukera izango dugu La Directa egunkariko kazetarien eskutik.

Irabazi txiki bat galera handietan.

Zinemaren hiriak galera bat bestearen atzetik pilatzen du. Aurten, Arte Ederrak antzokia Hilton Hotel bihurtzeko zorian dagoela, Dock of the Bay jaialdia desagertu dela ezagutu dugu. Hamazazpi urteren ondoren, Donostiako zinema dokumental musikalaren jaialdiak agur esan du. Eta ez dute gustuz egin, horretara behartuta egon dira. Horrelako kultur ekimenekiko ardura faltagatik, erakundeek laguntza faltagatik: "Ez da erraza independentea izatea, jarraitutasunari eustea, urtez urte interesa sortzea eta jaialdi bat aurrera ateratzeko borroka egitea".

Jaialdi txiki bat, "ia artisaua", ekitaldi handiko hiri batean. **Dock of the Bay jaialdiak hamazazpi edizio izan zituen. Eta Zinemaldi Alternatiboak, bere hamazazpigarren edizioan, errekonozimendu xume baina zintzo bat egin nahi dio.** Horretarako, irailaren 25ean, "Sin miedo al los cables" dokumentala proiektatuko dugu Txantxarreka gaztetxean.

Hiriak handitasunaren alde egiten du. Baina bada Donostia ekitaldi arranditsuetatik haratago ere. Eta ez dago hiriak bizkarra ematen dion Donostia horretara, herri eta txokoetara, kultura eta zinema eramatea baino poz handiagorik. Aurten, Txominenean ez ezik, **Zubietan ere izango da lehen aldiz jaialdia.**

Oharra (1)

2006ko lehen edizio haren ondoren, Zinemaldi Alternatiboa antolatu gabe geratu zen hiru urtez, 2010ean Groseko Kortxoenea gaztetxean berreskuratu genuen arte. Bost urtez jaso gintuen Kortxoeneak, eta gaztetxeari omenaldia egiten dio ondorengo edizio guztietan egokitu izan dugun "+5" aipuak. Izan ere, Zinemaldi Alternatiboak hiriko gune eta proiektu autogestionatuak lehenetsi ditu proiektzioak egiteko.

Oharra (2)

Mundu osoan "Zinemaldia" bezala ezagutzen zen, "Festival de San Sebastián" izenez baino gehiago, baina 2018an jaialdiak itxura grafikoa berritu zuen, bere logoan SSIFF siglak nabarmenduz. Zer behar zegoen horretarako? Ze nezesidade? Donostia, hiri akonplejatua, berriro ere lotsati agertzen zen euskaragatik. Eta ordutik *San Sebastian Insurrectionary Fandango Festibala* erabili dugu, txantxa eta irreberentzia gisa.



IRAILAK 18, OSTEGUNA

Lekua: [Uliako Mintegietako parkea](#) eta euria eginez gero bertako negutegian.

Ordua: 20:00etan

Proiektzioa: **SMURFIT, CRIMINAL AMBIENTAL**

Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Human Conet kolektiboa

Solasaldia: Human Conet, Lezoko Amezti Baso biziak taldea eta Komite Internazionalistak

[**TRAILERRA**](#)

K.I., RedHer eta HumanConet-ekin elkarlanean.



Smurfit Westrock enpresa jatorri irlandarrekoa da, 1934an sortua eta 1939an Jefferson Smurfitek erositakoa. Paperezko eta kartoizko ontzien ekoizpenean aritzen den nazioarteko konpainia da, 40 herrialde baino gehiagotan jarduten duena. 2024ko ekainean, AEBetako Westrock enpresarekin bat egin zuen, munduko kartoigintzako enpresa handiena bihurtuz. Paper eta kartoen ekoizpenak lur-sailen espekulazioa eta baso autoktonoen suntsipena ekarri ditu, gatazka sozialak areagotuz, elikadura-burujabetzarako arriskuak sortuz eta baliabide naturalak aldatuz.

IRAILAK 19, OSTIRALA

Lekua: [Guardetxea](#)
(Parte Zaharra)

Ordua: 19:00etan

Proiektzioa: **PRODUCTO LOCAL**

Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Jaxsa

Solasaldia: Jaxsa
zuzendariarekin

AZGA-rekin elkarlanean

[TRAILERRA](#)



Filmak hainbat pertsonaia-talde aurkezten ditu, euren harreman eta gatazkekin. Gaizkile-trioak (“Aita”, Daddy eta “Mutila”) apaizarekin negozio ilunak egiten ditu, baina Daddy-k diru faltaz lehen ohartzen dena da. Aldi berean, Irina errusiarra burdelera iristen da madame berri baten eskutik, eta han María ezagutzen du, ama bakarra eta prostituta; bien artean adiskidetasun estua sortuko da. Polizia apaizaren atzetik dabil negozioak egiteko, baina honek uko egiten dio; madamek, berriz, mehatxu eta estortsioen bidez bere helburuak lortzen saiatzen da. Mariáren eta alabaren arteko harremanak tentsioz betetzen dira, eta “Mutila”-rekin konplizitate berezi bat sortuko du. Bien bitartean, “Aita” eskasiaren aurrean amore emanez, poliziarekin negozioak egitera behartuta sentituko da.

IRAILAK 20 LARUNBATA

Lekua: [Letaman](#)
gaztetxean
(Intxaurrondo)


Hizkuntza: Katalana
(azpтитuluak gaztelaniaz)

Ordua: 19:00etan

Proiektzioa: **INFILTRATS**

Zuzendariak: Gemma
Garcia Fàbrega eta Sònia
Calvó Carrió

Solasaldia: La Directa-ko
kideekin



[TRAILERRA](#)

Infiltrats dokumentalak Òscar Campos ekintzailearen istorio gogorrarekin hasten da: hiru urtez bikotekide izan zuen Maria ez zela norbera pentsatzen zuen, baizik eta polizia infiltratua. Kasu horretatik abiatuta, filmak azken urteotan Katalunia, Valentzia eta Madrilen argitara atera diren infiltrazio polizialak azaltzen ditu: nola sartu eta irten ziren, zer akats egin zituzten eta batez ere, zein mina eragin zuten harreman pertsonaletan.

Aktibisten, kaltetuen, abokatuen, historialarien eta poliziaren ordezkari baten testigantzen bidez, dokumentalak agerian uzten du poliziak legezko eta etikoak diren mugak nola gainditu zituen gizarte mugimenduak zelatatzeke.

IRAILAK 21 IGANDEA

Lekua: [Zubietako Errebote plazan](#) (Euria eginez gero Kaxkapen)

Ordua: 20:00etan

Proiektzioa: **UHARTE BAT ETA GAU BAT**

Hizkuntza: Euskara

Zuzendaria: Lentilleres-eko Piraten pelikula bat

Solasaldia: Lentilleres-eko kide bat.



Gurdi Ertz kolektiboarekin elkarlanean

WEBGUNEA

Su baten inguruan, bidaiari zein piratek elkarri euren oroitzapenak kontatzen dizkiote, euren ametsak, euren batailak. Hizkuntza batetik bestera, historia batetik bestera, ekaitzaren orroa eta hostoen zurrumurrua entzuten da, mehatxuzko sirena eta dantza basatia, sableen talka eta txorien kantua. Egunsentia heldu arte, mila eta bat bide sortzen dira irudizko uhartean.

KONTESTUA:

Uharte bat eta gau bat kolektiboki produzituriko fikzio bat da, 2021-2023 urteetan zehar. Egileak Lentillereseko auzotarrak dira, auzo libre eta autogestionatu bat, Dijon hirian (Frantzia) geratzen den azkenengo landa eremua, tamainaz 8 hektarea dituen.

2010etik landa eremu hauek okupatuak eta landuak izan dira, udaletxearen hormigoizko “ekohiria”-ren proiektuaren kontra. Gaur egun oraindik arriskuan daude.

IRAILAK 22, ASTELEHENA

Lekua: [Marruma](#) Elkartea
(Gros)

Ordua: 19:00etan

Proiektzioa: **EL ARTE DE
LOS ANALFABETOS**

Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Kevin
Castellano eta Edu
Hirschfeld

Solasaldia: Kevin
Castellano eta Edu
Hirschfeld-ekin.

Marruma Kulturalak-ekin
elkarlanean

TRAILERRA



Antonio, Espainiako gerraostean kalean bizi izan zen adineko gizona, bere haurtzaroan aitarekin egin zuen bidaia gogorra berriz bizitzen du: Valentziatik Pirinioetaraino oinez egindakoa. 75 urte geroago, bere biloba Kevin da bidaia berean lagun, zinemaren bidez aitonaren oroitzapenak berreskuratu eta bizitzaz zein arteaz hausnartzeko.

IRAILAK 23, ASTEARTEA

Lekua: [Añorgako gaztetxean](#)

Ordua: 19:00

Proiektzioa: **KNEECAP**

Hizkuntza: Gaelikoz euskarazko azpitituluekin

Zuzendaria: Rich Peppiatt

Solasaldia: Kneecap Euskaraz-eko kideekin

[**TRAILERRA**](#)



Filmak ohikoak ez diren kideek osatutako talde baten historia kontatzen du: haurtzaroko bi lagun eta langile-klaseko trafikatzailleak diren Naoise Ó Cairealláin eta Liam Óg Ó Hannaidh, eta JJ Ó Dochartaigh musika-irakaslea. Hirurek bat egingo dute, gaeliko irlandarrean rap-talde bat sortzeko.

Hiru pertsonaien arteko topaketa berezia kartzelako galdeketa-gelan gertatzen da: JJ interprete lanetan ari da, poliziak ezin duelako Naoiserekin ingelesez komunikatu, autoritateati desobeditzeagatik atxilotu ondoren.

IRAILAK 24 ASTEAZKENA

Lekua: [Arkitektura Eskola](#)
(Ibaeta)

Ordua: 17:30etan


Proiektzioa: **PUSH**

Hizkuntza: Ingelesa
(gaztelaniazko
azpitituluekin)

Zuzendaria: Fredrik
Gertten

Ondoren solasaldia

[TRAILERRA](#)



Zergatik ezin dugu gure hiri propioetan bizi?

Etxebizitzaren kostu altuak eta munduko inbertsio-funts handiek pertsonak pobrezian murgiltzen dituzte, oinarrizko eskubide bat kenduz. Egoera salatzeko Leilani Farha aktibistaren determinazioak espekulazioaren atzean dagoen perversitatea agerian uzten du. Ordua da aitortzeko hau ez dela garapen natural eta saihestezin bat. Aldatu egin daiteke.

Etxebizitza munduko arazo larrienetako bat bihurtu da, pixkanaka galtzen ari garen giza eskubide oinarrizkoa. Gero eta aktibista gehiago, eta Leilani Farha bezalako pertsona anonimoak —protagonista karismatikoa eta NBEko txostengilea— ari dira beren denbora eta energiak eskaintzen gobernuak kontzientziazteko, mundu osoan neurri urgenteak har ditzaten krisi hau geldiarazteko. Push dokumentalak espekulazio urbanistiko eta higiezinaren mundu-sarearen sekretu ilunenak erakusten ditu, eta argi uzten du funts putreak etxebizitzetan inbertitzeak neurri handi batean eragiten duela hiri askotako auzoek jasaten duten gentrifikazioa.

IRAILAK 25 OSTEAGUNA

Lekua: [Txantxarreka](#)
gaztetxea (Antigua)

Ordua: 19:00etan


Proiektzioa: **SIN MIEDO A
LOS CABLES**

Hizkuntza: Gaztelania

Zuzendaria: Sot A Terra
kolektiboa

Solasaldia: Sot A Terra
kolektiboko kideak, DJ La
Fulana eta DJ Siwanaba

[**TRAILERRA**](#)



Festaren kultura alternatiboan emakumeen parte-hartzea ez da behar beste aztertu ezta ikusgai jarri ere, eta ez subkultura-adierazpenetan ere, hala nola free party ("rave") mugimenduan. Dokumental honetan, ikerketa feministaren eta pieza bisualaren artean kokatuta, esperientzia kontrakultural honek Estatu espainiarreko hainbat emakumeren eta genero disidenteen identitateetan duen zentralitatea azpimarratzen da. 2019an hasi zen DIY dokumental hau, musikaz, rave batean hasteaz, genero-harremanez, dantzaz, indarkeriaz, drogez... festaren esperientzian zehar gurutzatzen gaituzten guztiaz hitz egiteko. Bertan agertzen direnen esperientzien bidez (DJak, musika-produtoreak, tatuatzaileak, artisauak, kamellak...), dokumental honek helburu bikoitza du: genero-ikuspegitik esperientzia desberdinak ikusgarri egitea eta free party eszenan ematen diren parte-hartze mekanismo patriarkalak zalantzan jartzea.

Saio honekin errekonozimendu xume baina zintzo bat egin nahi diogu [Dock of the Bay](#) jaialdiari.

IRAILAK 26, OSTIRALA

Lekua: [Arteleku plaza](#)
(Txominenea) eta euria
eginez gero plazako
arkupetan.

Ordua: 20:00etan

Proiektzioa: **IGELAK**

Hizkuntza: Euskara
(gaztelaniazko
azpitituluekin)

Zuzendaria: Patxo
Telleria

Ondoren solasaldia

Behin Batean-ekin
elkarlanean.

[TRAILERRA](#)



Behin Batean, Txomineneko euskaltzaleen taldeak Igelak euskarazko filma aukeratu du auzoan proiektatzeko. Aukera berezia da, izan ere, filma proiektatuko den plazan bertan egon zen Arteleku arte zentroa izan zen, pelikulan azaltzen den gune autogestionatua sortzeko erabili zen espazioa (Kukutza gaztetxearekin batera). Proiektzio honen bidez, ikus-entzuleek auzoak gaur egun bizi duen eraldaketa urbanistikoaren aurretik nolakoa zen ezagutzeko aukera izango dute. 'Igelak'-en euskal aktore ezagun asko agertzen da, baita hainbat musikari ere, eta funtsean euskal zinemaren festa alai eta gozagarria da.

IRAILAK 28, IGANDEA

Lekua: [Sagueseko frontoia](#) eta euria eginez gero Marruma elkartean.

Ordua: 20:00

Proiektzioa: **A MAGICAL SUBSTANCE FLOWS INTO ME**

Hizkuntza: Ingelesa, arabiera eta hebreera (gaztelaniazko azpitituluekin)

Zuzendaria: Jumana Manna

Ondoren solasaldia

[TRAILERRA](#)

Robert Lachmann etnomusikologo judu alemaniarra izan zen. 1930eko hamarkadan, bere irratsaioak, «Oriental Music» izenekoak, Palestinako musika tradizioak aztertzen zituen, eta ohikoak ziren talde etniko eta erlijioso desberdinetako musikarien zuzeneko emanaldiak. Lachmannen ikerketa musikologikoetan inspiratuta, Jumana Manna artista palestinarra Israelen eta gaur egungo Palestinako lurraldeetan zehar egiten du bidaia irratsaioaren grabazioekin. Nola jotzen dira gaur egun kanta horiek, judu marokoar, kurdu edo yemenitarrek, samaritarrek, palestinar komunitate urbano zein landatarrek, beduinoek eta kristau koptoek interpretatuta?

Gazako artistentzat ekarpenak jasoko dira: <https://www.hassala.art/>

